



ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL

XII LEGISLATURA

XII. AGINTALDIA

Serie F Procedimientos administrativos/jurisdiccionales,
contratación/convenios, Comisión Arbitral

III Oferta Pública/Concursos

Administrazio/Jurisdikzio prozedurak,
kontratazioa/hitzarmenak, Ebazpen Batzordea

Eskaintza publikoa/Lehiaketak

F Saila

III

Número 3a

Bilbo, 2025eko maiatzaren 15a
Bilbao, 15 de mayo de 2025

3a alea

ASUNTO: Bases de la convocatoria del proceso selectivo para la cobertura de una plaza de traductor/traductora-intérprete como personal funcionario en la plantilla de las Juntas Generales de Bizkaia

Presidencia de la Cámara

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 13 de mayo de 2025, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

La Oferta Pública de Empleo para el año 2022 de estas Juntas Generales de Bizkaia, aprobada por la Mesa el día 24 de mayo de 2022, incluía una plaza código 103 denominada "Traductor/Traductora-intérprete", para su convocatoria mediante concurso-oposición libre. Es por ello por lo que se propone la aprobación de las presentes bases para la realización de la convocatoria correspondiente.

A tal fin, de conformidad con lo establecido en el Capítulo I del Título VI de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, sobre procesos y sistemas de selección de personal; en el Capítulo II del Decreto 190/2004, de 13 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas, y en virtud de las atribuciones conferidas en el artículo 24.1 del Reglamento de 22 de mayo de 2015, la Mesa de las Juntas Generales de Bizkaia,

ACUERDA:

1. Aprobar las bases de la convocatoria, que han de regir el procedimiento selectivo de carácter ordinario, relativo a la plaza código 103, denominada "Traductor/Traductora-intérprete", de la Escala Especial, Grupo A1, centro de trabajo Bilbao y perfil lingüístico 4 (Técnico-profesional) de las Juntas Generales de Bizkaia, que se contemplan en el Anexo I.
2. Disponer la publicación de dichas bases en el Boletín Oficial de las Juntas Generales, así como un extracto de aquellas en el Boletín Oficial de Bizkaia.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 13 de mayo de 2025.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

GAIA: Bizkaiko Batzar Nagusietako plantillan itzultzaile-interprete lanpostu bat funtzionario gisa betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdiaren oinarriak

Lehendakaritza

Aitaturako gaia dala-eta, honako erabagi honeek hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2025eko maiatzaren 13an egindako bileran:

Mahaiak 2022ko maiatzaren 24an onartutako Bizkaiko Batzar Nagusietako langile-plazen 2022. urteko enplegu-eskaintza jasota egoan 103 kode-zenbakiko "Itzultzaile-interprete" lanpostua oposizio-lehiaketa edegi bidez beteteko deia egitea. Hori dala-eta, jagokoa deia egiteko oinarri honeek onesteko proposamena egiten da.

Horretarako, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen VI. tituluko I. kapituluaren langileak hautatzeko prozesu eta sistemei buruz ezarritakoagaz eta Euskal administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuak beteteko araudia onartzen dauen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren II. kapituluaren jasotakoagaz bat etorri, eta 2015eko maiatzaren 22ko Araudiaren 24.1 artikuluan emondako ahalmenez baliatuz, Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiak honako honeek

ERABAGITEN DITU:

1. Bizkaiko Batzar Nagusietako "Itzultzaile-interprete" lanpostua hautaketa-prozedura arrunt bidez beteteko oinarriak onestea. 103 kodea daukan lanpostua da: "Itzultzaile-interpretea, Eskala Berezia, A1 taldea, Bilboko lantokian jarduteko eta 4. hizkuntza-eskakizunagaz (teknikari-profesionala). Oinarriak I. eranskinean dagoz jasota.
2. Oinarri horreek Bizkaiko Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta oinarrien laburpen bat Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Guztiak horren jakitun egon daitezkan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2025eko maiatzaren 13an.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri**.

BASES DE LA CONVOCATORIA DEL PROCESO SELECTIVO PARA LA COBERTURA DE UNA PLAZA DE TRADUCTOR/TRADUCTORA-INTÉRPRETE COMO PERSONAL FUNCIONARIO EN LA PLANTILLA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

Primera.- Objeto

1. El objeto de las presentes bases es la regulación de la convocatoria del proceso selectivo, por el sistema de concurso-oposición, con un único turno de acceso libre, para la provisión, como personal funcionario de carrera de las Juntas Generales de Bizkaia, de una plaza código 103 "Traductor/Traductora-intérprete", de la Escala Especial, Grupo A1, centro de trabajo Bilbao, perfil lingüístico 4 (Técnico-profesional), correspondiente al año 2022, al amparo de las previsiones contenidas en el Capítulo I del Título VI de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, sobre procesos y sistemas de selección de personal; y en el Capítulo II del Decreto 190/2004, de 13 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas.

2. El tribunal, de acuerdo con el artículo 61.8 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP), no podrá declarar personas seleccionadas a un número mayor de aspirantes que el de plazas convocadas.

3. Se declara el compromiso con el principio de igualdad de mujeres y hombres, que inspira el procedimiento del ingreso de personal al servicio de las Juntas Generales de Bizkaia.

4. Será objeto de la presente convocatoria la selección de las personas aspirantes a las plazas ofertadas y la creación de una bolsa de trabajo con las personas aspirantes no seleccionadas.

Segunda.- Requisitos de participación

1. Requisitos generales que deben reunir las personas aspirantes.

a) Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o reunir alguna de las siguientes circunstancias:

- Cónyuges de nacionales de estados miembros de la Unión Europea, cualquiera que sea su nacionalidad, y sus descendientes y los de su cónyuge, siempre que no haya separación de derecho, sean menores de veintinueve años o mayores de dicha edad dependientes.
- Asimismo, las personas incluidas en el ámbito de aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España en los que sea de aplicación la libre circulación de trabajadores y trabajadoras.

b) Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas propias del cuerpo o escala al que se pretende acceder.

c) Tener cumplidos 16 años y no haber alcanzado la edad de jubilación forzosa.

d) No haber sido objeto de sanción de separación del servicio mediante expediente disciplinario de cualquiera de las administraciones públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleo o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de personal funcionario, en el que hubiese sido sujeto de separación o inhabilitación. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse en situación de inhabilitación o en situación equivalente ni haber sido objeto de sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, el acceso al empleo público, en los mismos términos.

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO PLANTILLAN ITZULTZAILER-INTERPRETE LANPOSTU BAT FUNTZIONARIO GISA BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN DEIALDIAREN OINARRIAK.

Lehenengoa.- Xedea

1. Oinarri hauen xedea da Bizkaiko Batzar Nagusietako karrerako funtzionario gisa lanpostu bat, txanda ireki bakarreko lehiaketa-oposizio sistemaren bidez, betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdia arautzea. 103 kodea duen lanpostu bat da: "Itzultzaile-Interpretea", Eskala Berezia, A1 taldea, Bilboko lantokian aritzeko, 4. hizkuntza-eskakizuna (teknikari-profesionala), 2022. urteari dagokiona. Hori guztia, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen VI. tituluko I. kapituluaren eta Euskal administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren II. kapituluaren jasotako aurreikuspenen babesean.

2. Epaimahaiak, Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatu-tuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (aurrerantzean, EPOE) 61.8 artikulua arabera, ezin izango ditu hautatu deialdiko plaza kopurua baino hautagai gehiago.

3. Deklaratzen da konpromisoa hartu dela emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioarekin, eta horrek gidatzen duela Bizkaiko Batzar Nagusietan langileak sartzeko prozedura.

4. Deialdi honen xedea da eskaintako plazetarako hautagaiak hautatzea eta lan-poltsa bat sortzea hautatu ez diren hautagaienik.

Bigarrena.- Parte hartzeko baldintzak

1. Hautagaiak bete behar dituzten baldintza orokorrak.

a) Europar Batasuneko estatu kideren bateko herritartasuna izatea, edo honako baldintza hauetariko bat betetzea:

- Europar Batasuneko estatu-tako herritartasuna dutenen ezkontidea izatea, nazionalitatea edozein dela ere, bai eta herritartasuna duenaren ondorengo izatea edo haren ezkontidearen ondorengo izatea ere; betiere, zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, ondorengoak 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.
- Era berean, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsiko nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan dauden pertsonak izatea, langileen joan-etorri askea aplikatzeko bada.

b) Eskuratu nahi den kidego edo eskalari dagozkion zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

c) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adinera helduta ez egotea.

d) Diziplina-espedita batez edozein administrazio publiko-tako edo autonomia-erkidegotako organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea; ezta, ebazpen judicial baten ondorioz, enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutua edo berezia izatea ere, bereizi edo desgaitu duten funtzionario-kidegoan edo eskalan sartzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, hautagaia ezingo da desgaituta edo egoera baliokidean egon, eta ezingo du ezarrita izan diziplina-zehapenik edo baliokiderik, bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikorako sarbidea eragozten dionik.

e) Estar en posesión, o haber abonado los derechos para su expedición, de la titulación requerida. La titulación requerida es el título de Licenciatura o Grado Superior. En el caso de titulaciones extranjeras, se deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación.

f) No incurrir en causa legal de incapacidad o incompatibilidad según la normativa vigente, dejando a salvo el derecho de opción que esta le otorgue.

2. Requisitos específicos de participación

Es requisito específico para su provisión, la acreditación, a la fecha de la finalización del plazo de presentación de solicitudes, del perfil lingüístico de euskera 4 (Técnico-profesional), con carácter preceptivo, por lo que su acreditación es obligatoria.

Esos puestos no podrán ser provistos, en ningún caso, por quienes no hubieran acreditado su cumplimiento.

3. Fecha de cumplimiento de los requisitos

Quienes aspiren a las plazas deberán reunir todos y cada uno de los requisitos exigidos, con anterioridad a la fecha de finalización del plazo de presentación de la solicitud. El cumplimiento de los requisitos deberá mantenerse hasta el momento de efectuar la toma de posesión.

Tercera.- Publicaciones

Tanto la convocatoria del proceso selectivo, el nombramiento del tribunal, la relación de personas admitidas y excluidas, como el nombramiento de las personas funcionarias, serán publicados en el Boletín Oficial de las Juntas Generales de Bizkaia, y un extracto de los acuerdos. en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Bizkaia.

No obstante, a lo largo del proceso selectivo, toda la información relacionada con los diferentes aspectos de su desarrollo se publicará en la página web de las Juntas Generales y del Instituto Vasco de Administración Pública, en adelante IVAP, a efectos de notificación.

Asimismo, se enviará un aviso a las personas participantes que hayan facilitado un número de teléfono móvil o dirección de correo electrónico, vía SMS o vía correo electrónico, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 41.6 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. La falta de práctica de este aviso no impedirá que la notificación sea considerada plenamente válida.

Cuarta.- Presentación de solicitudes

Para la admisión y, en su caso, tomar parte en el proceso selectivo correspondiente, se deberá:

- 1) Cumplimentar la solicitud, preferentemente, por medios electrónicos en el Portal de Empleo del IVAP. Asimismo, se podrá presentar la solicitud de forma presencial en la sede administrativa de las Juntas Generales en Bilbao.
- 2) Presentarla en el plazo que va desde el día 16 de mayo hasta las 23:59 horas del día 12 de junio de 2025. En el supuesto de las presentadas presencialmente, de lunes a jueves de 08:30 a 13:30 y de 16:00 a 18:30 horas; y los viernes, de 08:30 a 13:30 horas.

La no presentación de la solicitud en tiempo y forma supondrá la exclusión de la persona aspirante.

No obstante, de conformidad con el artículo 68 de la Ley 39/2015, en el supuesto de defectos en las instancias, se requerirá a la persona interesada a través del Portal de Empleo del IVAP para que, en el plazo de diez días hábiles, proceda a su subsanación.

La presentación de la solicitud a través del Portal de Empleo del IVAP permitirá la cumplimentación electrónica de los siguientes trámites:

- La solicitud de participación.
- El registro electrónico de la solicitud.

e) Eskatutako titulazioa izatea edo jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Eskatzen den titulazioa Lizentziatura edo Goi Gradua da. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria izan beharko da.

f) Indarrean dagoen araubidearen arabera, ezgaitasuneko edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez egotea; dena den, araudiak ematen dion aukera-eskubidea errespetatuko da.

2. Parte hartzeko eskakizun espezifikokoak.

Lanpostua betetzeko eskakizun espezifikoa da 4. hizkuntza-eskakizuna (teknikari-profesionala) nahitaez egiaztaturik izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean; beraz, nahitaez egiaztatu behar da.

Eskakizun hori betetzen dutela egiaztatu ez dutenek ezin izango dute, inola ere, lanpostu hori bete.

3. Eskakizunak betetzeko epemuga.

Plaza lortu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik bete beharko dituzte eskakizun guztiak. Eskakizun horiek betetzen jarraitu beharko dute lanpostuaz jabetzen diren arte.

Hirugarrena.- Argitalpenak

Hautaketa-prozesuaren deialdia, epaimahaiaren izendapena, onartutako eta baztertutako pertsonen zerranda eta funtzionarioen izendapena Bizkaiko Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta laburpen bat Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean.

Era berean, hautaketa-prozesuan zehar, horren garapena-ekin lotutako informazio guztia Batzar Nagusien webgunean eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren —hemendik aurrera, IVAP— webgunean argitaratuko da, jakinarazpen-ondorioetarako.

Era berean, abisu bat bidaliko zaie, SMS edo posta elektronikoko bidez, mugikorreko zenbaki bat edo posta elektronikoko helbide bat eman duten parte-hartzaileei. Halaber, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.6 artikuluan zehaztutako edozein bulegotan aurkeztu ahal izango da eskaera, bertara joanda. Abisu hori ez emanagatik ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da.

Lauugarrena.- Eskaerak aurkeztea.

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, honako hauek egin beharko dira:

- 1) Eskabidea IVAPeko Enplegu Atarian betetzea, ahal dela bitarteko elektronikoen bidez. Era berean, eskabidea aurrez aurre aurkeztu ahal izango da Batzar Nagusiek Bilbon duten administrazio-egoitzan.
- 2) 2025eko maiatzaren 16tik ekainaren 12ko 23:59ra bitarteko epean aurkeztu beharko da eskabidea. Eskabideak aurrez aurre aurkezten badira, ordutegia hauxe izango da: astelehenetik ostegunera 08:30etik 13:30era eta 16:00etatik a 18:30era; eta ostiraletan 08:30etik 13:30era.

Eskabidea garaiz eta behar den moduan aurkezten ez bada, hautagaia kanporatu egingo da.

Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikuluekin bat etorritik, eskabideetan akatsik izanez gero, interesdunari, IVAPeko Enplegu Atariaren bidez, errekerimendua egingo zaio, hamar egun balioduneko epean akatsa zuzendu dezan.

Eskabidea IVAPeko Enplegu Publikoaren Atariaren bidez aurkezteak aukera emango du honako izapide hauek elektronikoki egiteko:

- Parte hartzeko eskabidea.
- Eskabidea elektronikoki erregistratzea.

- La modificación de los datos de la inscripción realizada durante el plazo de inscripción.
- La subsanación, en su caso, de la solicitud durante el plazo de subsanación.
- El acceso a la información relativa al proceso que se publique en el Portal del Empleo Público y su seguimiento.
- La presentación de reclamaciones, en los plazos que se habiliten a este efecto.
- La alegación de los méritos de la fase de concurso, en el plazo que se habilite a este efecto.
- Anexar, en su caso, la documentación que sea requerida.

También podrá presentarse la solicitud en los lugares recogidos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, mediante su presentación física.

Asimismo, y en cumplimiento de la legislación vigente en materia de Protección de Datos de Carácter Personal, los datos recabados para la gestión de los distintos procesos selectivos se incorporarán a la actividad de tratamiento denominada "Procesos Selectivos", para gestionar los datos de las personas candidatas en este proceso, que podrán ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación y portabilidad, dirigiéndose a estas Juntas Generales de Bizkaia en la dirección electrónica dpd-dbo@jggbizkaia.eus.

Quinta.- Relaciones de personas admitidas y excluidas

En el plazo máximo de un mes desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes, la Mesa de las Juntas Generales acordará la publicación, en el Portal de Empleo Público del IVAP, de las relaciones provisionales de personas admitidas y excluidas.

Se concederá un plazo de 10 días hábiles para la presentación de reclamaciones y subsanaciones de los errores que pudieran contener las solicitudes, a partir del día siguiente al de la publicación del acuerdo.

Transcurrido el plazo de reclamaciones, y una vez resueltas, se publicará el Acuerdo de la Mesa por el que se declaran aprobadas las relaciones definitivas de personas admitidas y excluidas en el Boletín Oficial de las Juntas Generales de Bizkaia, y un extracto, en el Boletín Oficial del Territorio Histórico. El Acuerdo contendrá el llamamiento a las personas aspirantes para la realización de la prueba de la fase de oposición.

Adicionalmente, las personas incluidas en las relaciones definitivas recibirán un aviso vía SMS o correo electrónico, siempre que hubieran facilitado un número de teléfono móvil o una dirección de correo electrónico.

Podrán realizar estas pruebas, tanto las personas admitidas al proceso, como aquellas que, figurando como excluidas, acrediten la interposición del correspondiente recurso de reposición pendiente de resolución, si bien, en este último caso, no serán calificadas, de ser desestimados los recursos que hubieren interpuesto.

Sexta.- Proceso selectivo

6.1. Fase de oposición

Consistirá en la realización de tres ejercicios, de carácter obligatorio y eliminatorio, con una puntuación máxima de **80 puntos**. Para superar la fase de oposición, se deberá obtener una puntuación mínima de 40 puntos, así como superar todas las pruebas de carácter sucesivo y eliminatorio.

El tribunal calificador podrá disponer la celebración de los ejercicios y pruebas en orden diferente al establecido en estas bases. Asimismo, podrá convocar varios ejercicios en un mismo día, o partes de un ejercicio en distintos días. Para tal fin, efectuará la convocatoria con, al menos, cinco días naturales de antelación a la realización de la correspondiente prueba.

- Egindako inskripzioaren datuak aldatzea inskripzioa egiteko epean.
- Eskabidea zuzentzea, hala badagokio, zuzentzeko epean.
- Enplegu Publikoaren Atarian prozesuari buruz argitaratzen den informaziorako sarbidea izatea eta haren jarraipena egitea.
- Erreklamazioak aurkeztea, horretarako ezartzen diren epeetan.
- Lehiaketaren faseko merezimenduak alegatzea, horretarako ezartzen den epean.
- Eskatzen den dokumentazioa eranstea, hala badagokio.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein bulegotan aurkeztu ahal izango da eskaera, bertara joanda.

Era berean, eta datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen legeria betez, hautaketa-prozesuak kudeatzeko eskatutako datuak "Hautaketa-prozesuak" izeneko tratamendu-jardueran txertatuko dira, prozesu honetako hautagaien datuak kudeatzeko. Dena den, datuetara irispidea izateko eskubidea, datuak zuzentzekoa, ezereztekoa eta eramangarritasun-eskubidea, bai eta datuen tratamenduari aurka egitekoa edo hura mugatzekoa ere baliatzeko aukera egongo da, eta, horretarako, Bizkaiko Batzar Nagusietara jo beharko da dpd-dbo@jggbizkaia.eus helbide elektronikoaren bidez.

Bosgarrena.- Onartutako eta baztertutako zerrendak

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean, Batzar Nagusietako Mahaiak erabakiko du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak IVAPeko Enplegu Publikoaren Atarian argitaratzea.

10 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabideetako akatsak zuzentzeko, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota eta horiek ebatzita, Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean —azken horretan laburpen bat— argitaratuko da Mahaiaren Erabakia, non onartutako eta baztertutako behin betiko zerrendak jasoko diren. Erabaki horretan, oposizio-faseko proba egiteko deia egingo zaie hautagaiari.

Gainera, behin betiko zerrendetan dauden pertsonen SMS edo mezu elektroniko bidez jasoko dute abisua, baldin eta telefono mugikorreko zenbaki bat edo helbide elektroniko bat eman badute.

Prozesuan onartutakoekin egin ditzakete hautaprobak, bai eta baztertu gisa azaldu arren berraztertze-errekurtsoa jarri dutenek ere, oraindik ebaizpenik jaso ez dutela egiaztatzen badute. Azken kasu horretan, errekurtsuak ezesten badira, ez dira kalifikatuko.

Seigarrena.- Hautaketa-prozesua

6.1. Oposizio-fasea

Hiru ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertzai-leak. Gehienez **80 puntu** lortu ahal izango dira. Oposizio-fasea gainditzeko, gutxienez 40 puntu lortu beharko dira, eta proba guztiak egin ahala gainditu beharko dira, baztertzai-leak dira eta.

Kalifikazio-epaimahaiak erabaki ahal izango du ariketak oinarri hauetan ezarritakoak bestelako ordenan egitea. Halaber, ariketa bat baino gehiago deitu ahal izango ditu egun berean, edo ariketa baten zatiak egun desberdinetan, betiere deialdia gutxienez bost egun natural lehenago eginez.

Solo se evaluará cada prueba a los aspirantes que hayan superado la prueba eliminatoria anterior.

Primer ejercicio: Prueba de **conocimientos teóricos**, que consistirá en un cuestionario de preguntas con varias alternativas de respuesta, que versarán sobre el temario señalado y que será puntuada, como máximo, con **25 puntos**. Para superar este ejercicio, deberá obtenerse, como mínimo, una puntuación de 12,50 puntos.

El cuestionario relativo a la parte específica tendrá una versión idiomática única, en la cual, las preguntas y sus correspondientes opciones de respuesta, irán escritas en el idioma en el que venga enunciado el tema sobre el que se pregunta.

Las preguntas no contestadas, las dobles y las erróneas no tendrán penalización.

Segundo ejercicio: Prueba de **traducción**, que consistirá en cuatro pruebas sucesivas, de carácter eliminatorio, que serán puntuadas, en total, con un máximo de **30 puntos**:

- Traducción al euskera de un documento, de contenido jurídico, redactado en castellano. Se le asignará una puntuación máxima de 7,5 puntos. Para superar esta parte del ejercicio, se deberá obtener una puntuación mínima de 3,75 puntos.
- Traducción al castellano de un documento, de contenido jurídico, redactado en euskera unificado (batua). Se le asignará una puntuación máxima de 7,5 puntos. Para superar esta parte del ejercicio, se deberá obtener una puntuación mínima de 3,75 puntos.
- Traducción de un texto general, redactado en castellano, al euskera bizkaino. Se le asignará una puntuación máxima de 7,5 puntos. Para superar esta parte del ejercicio, se deberá obtener una puntuación mínima de 3,75 puntos.
- Traducción de un texto general, redactado en euskera bizkaino, al castellano. Se le asignará una puntuación máxima de 7,5 puntos. Para superar esta parte del ejercicio, se deberá obtener una puntuación mínima de 3,75 puntos.

Tercer ejercicio: prueba de **interpretación**, que consistirá en la traducción simultánea de intervenciones en euskera, de naturaleza parlamentaria.

La prueba constará de dos partes:

- La primera, consistirá en una interpretación directa, sin texto de apoyo.
- La segunda, consistirá en una interpretación con apoyo del texto en que se basa el orador u oradora, que será entregado antes del inicio de la prueba.

Esta prueba será puntuada con un máximo de **25 puntos**.

La primera parte se puntuará con un máximo de 15 puntos, debiendo alcanzarse un mínimo de 7,5 puntos para superarla.

La segunda parte se puntuará con un máximo de 10 puntos, debiendo alcanzarse un mínimo de 5 puntos para superarla.

El tribunal, una vez realizadas las pruebas y mediante la adopción del correspondiente acuerdo, dispondrá la publicación de las respuestas correctas en el Portal de Empleo Público del IVAP.

Las personas que concurran al ejercicio serán convocadas en llamamiento único.

El tribunal, para garantizar la igualdad de oportunidades y trato en el desarrollo de las pruebas selectivas, podrá adaptar las condiciones de la convocatoria de las distintas pruebas, en el caso de personas imposibilitadas de acudir al lugar de la prueba por razones de embarazo y parto o enfermedad grave. Tales circunstancias deberán ponerse en conocimiento del tribunal, con carácter previo a la celebración de la prueba, adjuntando la documentación justificativa.

Aurreko proba baztertzaila gainditu dutenen probak baino ez dira ebaluatuko.

Lehenengo ariketa: Ezagutza teorikoen proba. Galdera-sorta bat izango da, hainbat erantzun-aukerarekin. Adierazitako gai-zerrendari buruzkoak izango dira, eta gehienez **25 puntu** lortuko dira. Ariketa gainditzeko, 12,50 puntu lortu beharko dira gutxienez.

Zati espezifikoa erantzun galde-sortak hizkuntza-bertsio bakarra izango du, eta gai bakoitza gai-zerrendan dagoen hizkuntza berean idatzita egongo dira bai galderak bai horiei dagozkien erantzun-aukerak.

Erantzun gabeko galderak, erantzun bikoitzak eta oker erantzundakoak ez dira zigortuko.

Bigarren ariketa: Itzulpen-proba: lau proba egingo dira bata bestearen atzetik, baztertzailak izango dira eta guztira **30 puntu** emango dira gehienez:

- Euskarara itzultzea eduki juridikoa izango duen gaztelaniako dokumentu bat. Gehienez 7,5 puntu lortu ahal izango dira. Ariketaren zati hau gainditzeko, 3,75 puntu lortu beharko dira gutxienez.
- Gaztelaniara itzultzea eduki juridikoa izango duen euskara batuko dokumentu bat. Gehienez 7,5 puntu lortu ahal izango dira. Ariketaren zati hau gainditzeko, 3,75 puntu lortu beharko dira gutxienez.
- Gaztelaniara itzultzea izaera orokorreko bizkaierazko dokumentu bat. Gehienez 7,5 puntu lortu ahal izango dira. Ariketaren zati hau gainditzeko, 3,75 puntu lortu beharko dira gutxienez.
- Bizkaierara itzultzea izaera orokorreko gaztelaniako dokumentu bat. Gehienez 7,5 puntu lortu ahal izango dira. Ariketaren zati hau gainditzeko, 3,75 puntu lortu beharko dira gutxienez.

Hirugarren ariketa: interpretazio-proba. Euskarazko hitzaldi parlamentarioen interpretazioa (aldibereko itzulpena) egin beharko da gaztelaniara.

Bi zati izango ditu:

- Interpretazio zuzena, laguntza-testurik gabe.
- Interpretazioa, hizlariak oinarritzat hartutako testu batek lagunduta. Testu hori proba hasi aurretik emango zaie lehiatzaileei.

Gehienez **25 puntu** lortu ahal izango dira.

Lehenengo zatian 15 puntu emango zaizkio gehienez, eta gainditzeko gutxienez 7,5 puntu lortu beharko dira.

Bigarren zatian 10 puntu emango zaizkio gehienez, eta gainditzeko gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

Epaimahaiak, proba egin ondoren eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu IVAPen Enplegu Publikoaren Atarian.

Lehiatzen diren pertsonen deialdi bakarra egingo zaie ariketa egiteko.

Epaimahaiak, hautaprobaren garapenean aukera- eta tratu-berdintasuna bermatzeko, proben deialdiaren baldintzak egokitu ahal izango ditu, hautagaien bat bertaratu ezin bada haurdunaldia, erditzea edo ezinbesteko arrazoiak direla eta. Arrazoi horien berri proba egin baino lehen eman beharko zaio epaimahaiari, justifikazio-agiriak erantsiz.

El tribunal adaptará los medios de realización de los ejercicios a aquellas personas aspirantes que lo precisen y lo hubieren indicado en la solicitud de participación, de forma que gocen de igualdad de oportunidades con el resto de las personas participantes, siempre que, con ello, no se desvirtúe el contenido de la prueba, ni se reduzca, o menoscabe, el nivel de aptitud exigido.

A la realización de las pruebas de selección podrán asistir, tanto las personas admitidas al proceso, como aquellas que, figurando como excluidas, acrediten la interposición del correspondiente recurso de reposición pendiente de resolución.

A efectos de identificación, acudirán a las pruebas provistas de documento nacional de identidad, pasaporte o permiso de conducir.

6.2. Fase de Concurso

Finalizada la prueba de la fase de oposición, el tribunal publicará los resultados provisionales y establecerá un plazo de 10 días hábiles para formular reclamaciones. Finalizado el plazo, y resueltas las reclamaciones que, en su caso, se hubieran presentado, el tribunal hará públicos los resultados definitivos.

Una vez publicados los resultados de la fase de oposición, el tribunal establecerá un plazo de diez días hábiles para alegar los méritos.

Se valorarán los méritos que se detallan a continuación, y tendrán una puntuación máxima de 20 puntos, evaluándose de conformidad con el siguiente baremo:

a) Experiencia

Servicios prestados en cualquier Administración Pública, Organismos Autónomos o Entes Públicos de Derecho Privado en Cuerpos, Escalas o categoría de traductor/traductora-intérprete del grupo A1, o en puestos adscritos a los mismos, con independencia del carácter funcional, estatutario o laboral de la relación de la que traigan causa.

El cómputo de la experiencia se efectuará realizando la suma de los períodos trabajados que cumplan los requisitos exigidos, despreciándose las fracciones inferiores a un mes. A estos efectos, se entenderá por mes el conjunto de 30 días.

Esta experiencia se valorará a razón de 0,05 puntos por mes trabajado, si el puesto ha sido de traducción/interpretación euskera-castellano y/o castellano-euskera. Si ha sido solo de interpretación o solo de traducción, se valorará a razón de 0,02 puntos por mes completo.

En todo caso, la experiencia se puntuará con un máximo de 14 puntos

Si los servicios se han prestado en las Juntas Generales de Bizkaia, bastará su alegación en plazo.

b) Títulos académicos

Se puntuarán, con un máximo de **3 puntos**, según el siguiente baremo:

- Doctorado en traducción e Interpretación 3 puntos
- Licenciatura o Grado Universitario en traducción e Interpretación 1,5 puntos

c) Conocimientos de idiomas

Se valorarán, con un máximo de 2 puntos, los conocimientos de inglés, francés y alemán en los siguientes niveles del Marco Común Europeo de Referencia, de acuerdo con lo establecido en el Decreto 117/2015, de 30 de junio, de equivalencia de títulos y certificados de idiomas en los procesos de selección y provisión de puestos de trabajo de la Administración General de Euskadi y sus Organismos Autónomos:

Epaimahaiak ariketak egiteko baliabideak egokitzeko dizkie egokitzapenik behar eta eskabidean hala adierazi duten hautagaiei. Izan ere, horrela, aukera-berdintasunean jardungo dute osterantzeko parte-hartzaileekin, betiere hori eginda probaren edukia desitxuratzen ez bada eta eskatutako gaitasun-maila jaisten edo okerragotzen ez bada.

Prozesuan onartutakoekin egin ditzakete hautaprobak, bai eta baztertu gisa azaldu arren berraztertze-errekurtsoa jarri dutenek ere, oraindik ebazpenik jaso ez dutela egiaztatzen badute.

Hautagai bakoitzak, bere burua identifikatzeko, nortasun-agiri nazionala, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko du probetara.

6.2. Lehiaketa-aldia

Oposizio-faseko proba amaitutakoan, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratu ditu, eta 10 egun balioduneko epea emango du erreklamazioak egiteko. Epe hori amaitu eta erreklamaziorik egon bada, haiak ebatzi ondoren, behin betiko emaitzak argitaratu ditu epaimahaiak.

Oposizio-faseko emaitzak argitaratu ondoren, epaimahaiak hamar egun balioduneko epea emango du merezimenduak alegatzeko.

Merezimenduetatik gehienez 20 puntu atera ahal izango dira. Baloratuko diren merezimenduak baremo honen arabera ebaluatuko dira:

a) Esperientzia

Edozein administrazio publikotan, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikotan A1 azpitaldeko itzultzaile-interprete kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremaneak nahiz lan-kontratuko harremaneak izan.

Zenbaketa egiteko, lan egindako aldien batura egingo da, eta, behin batura hori eginda, ez dira aintzat hartuko hilabetetik beherako zatiak. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetatik.

Esperientzia hori baloratzeko, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,05 puntu emango dira, baldin eta lanpostua euskara-gaztelania eta/edo gaztelania-euskara itzultzaile-interpretearena izan bada. Lanpostua interpretearena edo itzultzailearena bakarrik izan bada, 0,02 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko.

Esperientziatik 14 puntu lortu ahal izango dira gehienez.

Zerbitzu hori Bizkaiko Batzar Nagusietan eman bada, nahikoa izango da hori epe barruan alegatzea.

b) Titulu akademikoak

Gehienez ere **3 puntu** lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

- Itzulpengintza eta Interpretazioko doktoregoa, 3 puntu.
- Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentzia edo unibertsitate-gradua, 1,5 puntu.

c) Hizkuntzak

Aintzat hartuko dira bakarrik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien baliokidetasuna ezartzeko ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuaren Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren mailen baliokide diren ingeles, frantses eta alemaniera titulu eta ziurtagiriak. Gehienez ere 2 puntu lortu ahal izango dira:

- Nivel C2: 1 punto por idioma
- Nivel C1: 0, 75 puntos por idioma
- Nivel B2: 0,5 puntos por idioma

En caso de que se disponga de la acreditación de más de un nivel de la misma lengua, se valorará, únicamente, el nivel más alto.

d) Conocimientos de informática

Se valorarán los conocimientos informáticos, hasta un máximo de **1 punto**, conforme al siguiente baremo:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 avanzado: 0,5 puntos
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 básico: 0,3 puntos (no se valorará si ya se valora el nivel avanzado)
- Microsoft Power Point: 0,5 puntos

La superación de los módulos se acreditará mediante el sistema de certificación IT Txartela, cuya acreditación y fecha de obtención será cotejada por la entidad convocante con la Fundación Tecnalia Research.

6.3 Calificaciones finales

a) La calificación final de cada persona aspirante vendrá determinada por la suma de las puntuaciones obtenidas en la fase de oposición y en la fase de concurso.

En caso de empate, el orden de prelación se establecerá atendiendo, sucesivamente, a los siguientes criterios:

- Se dará prioridad a las mujeres en aquellas Escalas, Subescalas y Clases en las que su representación sea inferior al 40 por cien, salvo que concurren en las otras personas candidatas motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso al empleo.
- A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en la fase de oposición.
- A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en la fase de concurso.

b) Una vez realizada la valoración de méritos, la Mesa de las Juntas Generales acordará la publicación de las relaciones de las calificaciones provisionales de las personas aprobadas y puestos ofertados.

A partir del día siguiente al de la publicación, las personas interesadas dispondrán de un plazo de 10 días hábiles para formular reclamaciones.

Expirado el plazo de reclamaciones y resueltas las que, en su caso, se hubieran presentado, la Mesa de las Juntas Generales ordenará la publicación de las relaciones definitivas de las calificaciones finales de las personas aprobadas y puestos ofertados, en las que se indicará el orden de prelación de cada persona aspirante atendiendo a la puntuación obtenida y, en su caso, aplicando la cláusula de prioridad y los criterios de desempate.

Séptima.- Nombramiento y toma de posesión

El plazo de presentación de documentación será de 20 días desde la publicación de las relaciones definitivas de las personas aprobadas, una vez transcurrido el cual, por Acuerdo de la Mesa de las Juntas Generales de Bizkaia, se nombrará funcionario o funcionaria de carrera a la persona seleccionada, quien tomará posesión de la plaza, con todos los derechos y deberes que señalan las disposiciones vigentes en la materia.

- C2 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila: 0, 75 puntu hizkuntza bakoitzeko
- B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko

Hizkuntza beraren maila bat baino gehiagoren ziurtagiria izanez gero, maila altuenekoa bakarrik baloratuko da.

d) Informatika-ezagutzak.

Gehienez ere **1 puntu**, baremo honen arabera:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua: 0,5 puntu
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrikoa: 0,3 puntu (ez da baloratuko, baldin eta maila aurreratuta baloratu bada)
- Microsoft Power Point: 0,5 puntu

Moduluak gainditu izana IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko da, eta erakunde deitzaileak Tecnalia Research Fundazioarekin egiaztatu beharko du bai moduluok lortu izana bai horien data.

6.3 Azken kalifikazioak

a) Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa oposizio-fasean eta lehiaketa-fasean lortutako puntuen batura izango da.

Berdinketarik egonez gero, irizpide hauek bata bestearen ondoren aplikatuz ezarriko da lehentasun-hurrenkera:

- Emakumeei lehentasuna emango zaie emakumeak % 40 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak eskuratzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
- Oposizio-fasean puntuaziorik handiena lortzen duenaren alde.
- Lehiaketa-fasean puntuaziorik handiena lortzen duenaren alde.

b) Merezimenduen balorazioa egin ondoren, Batzar Nagusietako Mahaiak aginduko du gainditutako behin-behineko kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen zerrendak argitaratzeko.

Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, eta aurkeztutakoak ebatzi ondoren, Batzar Nagusietako Mahaiak aginduko du gainditu dutenen azken kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratzeko. Zerrenda horietan, hautagai bakoitzaren lehentasun-hurrenkera adieraziko da, lortutako puntuazioaren arabera eta, hala badagokio, lehentasun-klausula eta berdinketa hausteko irizpideak aplikatuta.

Zazpigarrena.- Izendapena eta lanpostuaz jabetzea

Dokumentazioa aurkezteko epea 20 egunekoa izango da, behin onartutako behin betiko zerrendak argitaratzen direnetik aurrera. Epe hori amaitu ondoren, Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiaren erabakiaren bidez, karrerako funtzionario izendatuko da pertsona hautatua, eta arlo honetan indarrean dauden xedapenek adierazten dituzten eskubide eta eginbehar guztiak izango ditu.

El nombramiento se publicará en el Boletín Oficial de las Juntas Generales de Bizkaia, así como un extracto, en el del Territorio Histórico.

Octava.- Tribunal calificador: composición y constitución, abstención y recusación, reglas de funcionamiento

Por Acuerdo de la Mesa de las Juntas Generales de Bizkaia se nombrará a las personas integrantes del tribunal que hayan de calificar las pruebas selectivas. Los nombramientos se publicarán en el Boletín Oficial de las Juntas Generales de Bizkaia.

El tribunal estará compuesto por una presidencia y tres vocales, con sus correspondientes suplencias, que tendrán la condición de funcionarios/as de carrera, personal estatutario o laboral fijo. Una de las personas vocales será la que ocupará la secretaría.

La pertenencia al tribunal lo será, siempre, a título individual, sin poder ostentar representación alguna.

La composición del tribunal respetará el principio de especialidad, conforme al cual, al menos, la mitad de las personas que lo integran deberá poseer una titulación correspondiente a la misma área de conocimientos que la exigida; y la totalidad, una titulación de igual o superior nivel académico.

De conformidad con el artículo 22.4 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, una de las vocalías se designará a propuesta del IVAP.

En la composición del tribunal, se garantizará el principio de representación equilibrada, recogido en el artículo 20.4 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

El tribunal podrá disponer, si lo considera conveniente, la incorporación de personal asesor especialista que colabore con las personas que lo componen, y que se limitará al ejercicio de sus especialidades técnicas.

Las personas integrantes del tribunal deberán abstenerse de actuar, notificándolo a la Mesa de las Juntas Generales, cuando concurra, en ellas, alguna de las circunstancias contempladas en el artículo 23 de la ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

En este caso, las personas interesadas podrán, en cualquier momento, recusar a los/as miembros del tribunal, de conformidad con lo establecido en el artículo 24 de la Ley 40/2015.

El tribunal queda vinculado a las presentes bases del proceso selectivo. Asimismo, ajustará su actuación a las reglas determinadas en los artículos 15 y siguientes de la ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, actuando con plena autonomía funcional y velando por la legalidad del procedimiento.

De acuerdo con el ordenamiento jurídico, resolverá todas las dudas que surjan en la aplicación de las presentes bases y adoptará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo de la convocatoria, garantizando la confidencialidad del proceso.

Las asistencias y colaboraciones por participación en el tribunal darán derecho a percibir las indemnizaciones que se hayan aprobado por la Mesa, y, en su defecto, será de aplicación lo establecido en el Decreto Foral 462/2002, de 24 de mayo, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

Novena.- Recursos

La convocatoria y sus bases, así como cuántos actos administrativos se deriven de esta y de la actuación del Tribunal, podrán ser impugnadas por las personas interesadas en los supuestos y en la forma establecida en la Ley 39/2025, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; y en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Izendapena Bizkaiko Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta laburpen bat Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Zortzigarrena.- Epaimahai kalifikatzailea: osaera eta eraketa, abstentzioa eta errefusatzea, funtzionamendu-arauak

Hautaprobak kalifikatuko dituen epaimahaiko kideak Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiaren erabakiz izendatuko dira. Izendapenak Bizkaiko Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Epaimahaiburuak eta hiru kidek osatuko dute epaimahaia, dagozkien ordezkoein, eta karrerako funtzionarioak, estatutupeko funtzionarioak edo langile lan-kontratadun finkoak izango dira. Kideetarikoa bat idazkaria izango da.

Epaimahaiko kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere beste inoren ordezkari gisa.

Epaimahaia osatzean errespetatu egingo da espezialitatearen printzipioa, zeinaren arabera epaimahaiko kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza-arlo bereko tituluren bat izan behar duten, eta guztiek ikasketa-maila bereko edo goragoko tituluren bat.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legearen 22.4 artikulua arabera, kideetarikoa bat IVAPek proposatuta izendatuko da.

Epaimahaia osatzean, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 artikuluan jasotako ordezkartza orekatuaren printzipioa bermatuko da.

Epaimahaiak, egoki baderitza, aholkulari espezialistak ipini ahal izango ditu epaimahaikideei laguntzeko. Aholkulari horiek euren espezialitate teknikoetan baino ez dute jardungo.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren batean egonez gero, epaimahaikideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta halaxe jakinarazi Batzar Nagusietako Mahaiari.

Kasu horretan, interesdunek noiznahi errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, 40/2015 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Epaimahaia hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri hauen mende egongo da. Era berean, epaimahaiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arauen arabera jardungo du, autonomia funtzional osoa izango du eta prozeduraren legekotasuna zainduko du.

Era berean, ordenamendu juridikoa aintzat harturik, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebaztuko ditu eta deialdia behar den moduan garatzeko behar diren erabakiak hartu eta prozesuaren konfidentziasuna bermatuko du.

Epaimahaian parte hartzera joateagatik eta laguntza emateagatik, Mahaiak onartutako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea sortuko da, eta, halakorik ezean, zerbitzuagatik kalte-ordainei buruzko maiatzaren 26ko 462/2002 Foru Dekretuan ezarritakoa aplikatuko da.

Bederatzigarrena.- Errekurtsoak

